



Bertsolare Elkarte eta lurraldeetako elkarteetako kideak atzo, Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzaren atarian.

# Badator Txapelketa Nagusia

Irailaren 24etik abenduaren 18ra bitartean ospatuko da Bertsolari Txapelketa Nagusiaren 18. edizioa, 42 bertsolarirekin.

✦ **Miren Mindegia**  
 📍 **Maidar Goikoetxea**

**BILBO** - Pandemiaren geldialdia tartean, bost urteko zikloa beteko du Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiak bere 18. edizioan. Etenaldiak etenaldi, alta, gogobizidator Bertsolare Elkarteak antolatzen duen hamargarren txapelekta hau. Getxon abiatuko da bertso lehia irailaren 24an eta, lehenengoz txapelketa abiatu zenetik, Iruñeko Nafarroa Arenako eszenatokia izanen du helmuga, abenduaren 18an. Tartean, euskararen herri osoa zeharkatuko du, ohi duen bezala, bertsoa lau haizetara zabalduz. Denetara 42 bertsolarik har-

tuko dute parte aurtengo edizioan. Horiekin batera, 14 lagunek osatzen dute gai-jartzaile taldea eta 21 dira epaile lanetan arituko direnak. Sei saio izango dira lehen fasean: irailaren 24an hasita, bina saio jokatu dira astebururo. Zazpi finalaurreko izango dira jarraian: asteburuko saio bat jokatu da, larunbatero, zehazki. Eta azkenik, abenduaren 18an finala izango da. Gainontzeko saioak Arrasaten, Gotaine-Irabarnen, Gasteizen, Donostian, Lizarran, Elizondan, Donibane Garazin, Irunen, Durangon, Amurrion, Baionan eta Bilbon ospatuko dira. Atzo, Bilboko Euskaltzaindiaren egoitzan eskainitako aurkezpenan

Euskal Herriko Bertsolare Elkarte Lehendakari Taldeko kide Gontzal Agotek azaldu moduan, "azken urteotan ahailegin handia egin du Bertsolare Elkarteak tokian tokiko antolatzaileekin, bertsoeskolekin eta sortzaileekin beraiekin batera plaza biziberritzeko", pandemiak eragindako kulturegintzaren egoera latzari erreferentzia eginez: "Egoerak hobera egin du, eta horrek poza ematen du. Dena den, bertso plazaren martxa arretaz segitzen dugu; bate-tik, pandemiak utzitako ondorioak oraindik ere ez direlako guztiz desagertu, eta, bestetik, bertsolaritzaren egungo egoera bertan islatzen delako".

Izan ere, Bertsolare Elkarteak plazaren irakurketa egin du aldianaldian, eta datu onak dira azken hilabeteetakoak. "Azken urteetan gertatutakoak gertatuta ere, argi esan dezakegu bertsolaritza oso bizi dagoela euskararen lurralde osoan zehar", jarraitu du elkarte koordintzaile Idoia Trenorrek, eta erantsi: "Garrantzitsua da bizitasun hori nondik datorren azaltzea. Txapelketa ez da ekintza isolatu bat, txikitik, egunerokoa eta ahailegin handiz egunero egiten den lanaren ondorioa da". Hezkuntzan, ikerkuntzan nahiz plazan egiten den lana azpimarratu ditu, sei Bertsolare Elkarte, Lanku Kultur Zerbitzuen eta Xepelar Doku-

mentazio Zentroaren eskutik. Hain zuzen, aurkezpenan izan dira Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako, eta Nafarroako Bertsolare Elkarteetako eta Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako Bertsularien Lagunak Elkarte lehendakariak.

**42 BERTSOLARI, 14 SAIO** Agotek azpimarratu bezala, "gogotsu" daude bertsolariak txapelketaren oholtzara igotzeko. Lehenengo fasean 36 bertsolari izango dira kantuan: 2 Arabatik, 10 Bizkaitik, 16 Gipuzkoatik, 5 Nafarroatik eta 3 Xilabatik sailkatuak. Horietatik 19 igaroko dira finalaurrekoetara, eta bertan aurreko edizioako 5 finalistarekin egingen dute topo: Unai Agi-



**LEHENENGO FASEA**

- **Irailak 24, Getxo.** Agin Laburu Rezola, Eneko Lazkoz Martinez, Nerea Elustondo Plazaola, Oihana Bartra Arenas, Peru Abarrategi Sarrionandia, Unai Mendizabal Jauregi.
- **Irailak 25, Arrasate.** Asier Azpiroz Iztueta, Iñaki Apalategi Astigarraga, Joanes Illarregi Marzol, Miren Amuriza Plaza, Saioa Alkaiza Guallar, Xabier Silveira Etxeberria.
- **Urriak 1, Gotaine-Irabarne.** Alaia Martin Etxebeste, Ane Labaka Mayoz, Julio Soto Ezkurdi, Nerea Ibarzabal Salegi, Oihana Iguaran Barandiaran, Patxi Iriart Hiribarren.
- **Urriak 2, Gasteiz.** Amaia Iturriz Etxaniz, Haritz Mujika Lasa, Iban Urdangarin Lardizabal, Manex Agirre Arriolabengoa, Miren Artetxe Sarasola, Xabat Gallebeitia Abaroa.
- **Urriak 8, Donostia.** Aitor Etxebarriazarraga Gabiola, Beñat Iguaran Amondarain, Eñaut Martikorena Lizaso, Jone Uria Albizuri, Maddalen Arzallus Antia, Onintza Enbeita Maguregi.
- **Urriak 9, Lizarra.** Aitor Bizkarrera Ruiz, Gorka Pagonabarraga Agorria, Imanol Uria Albizuri, Iñigo Mantzizidor Larrañaga 'Mantxi', Maialen Akizu Bidegain, Unai Gaztelumendi Arandia.

**FINALAURREKOAK**

- **Urriak 22, Elizondo.** Unai Agirre Goia, Arrasateko irabazlea, Getxoko irabazlea eta puntuazioz sailkatuak.
- **Urriak 29, Donibane Garazi.** Amets Arzallus Antia, Gasteizko irabazlea eta puntuazioz sailkatuak.
- **Azaroak 5, Irun.** Sustrai Colina Acordarrementeria, Donostiako irabazlea, Gotaine-Irabarneko irabazlea eta puntuazioz sailkatuak.
- **Azaroak 12, Durango.** Beñat Gaztelumendi Arandia, Aitor Mendiluze Gonzalez, Lizarrako irabazlea eta puntuazioz sailkatuak.
- **Azaroak 19, Amurrio.** Donibane Garaziko irabazlea, Elizondoko irabazlepea eta puntuazioz sailkatuak.
- **Azaroak 26, Baiona.** Irungo irabazlea eta puntuazioz sailkatuak.
- **Abenduak 3, Bilbo.** Durango-ko irabazleak eta puntuazioz sailkatuak.

**FINALA**

- **Abenduak 18, Iruñea.** Maialen Lujanbio Zugasti eta puntuazioz zazpi bertsolari.

**“Gertatutakoak gertatuta ere, bertsolaritza oso bizirik dago euskararen lurralde osoan”**

**IDOIA TRENOR**  
Bertsozale Elkarte koordinatzailea

rre, Amets Arzallus, Sustrai Colina, Beñat Gaztelumendi eta Aitor Mendiluze. Aitor Sarriegig eta Igor Elortzak uko egin diote txapelketa kantatzeari, eta aurrekoan finalean aritu zirenez, ez da inor sartuko euren orde.

Bi itzuli izanen ditu finalaurreko faseak: lau lehenengo itzulian eta hiru bigarrenen. Bi saioetako puntuazioak gehitu eta lehenengo itzulian puntu gutxien lortu duten sei bertsolariek ez dute aurrera egingo. Taldeak aldatuko dira lehenengo itzulitik bigarrenean. Finalean, azkenik, zortzi bertsolari arituko dira kantuan. Maialen Lujanbio egungo txapelduna eta finalaurrekoetatik puntuazioz sailkatuko diren zazpiak. Hiru saiotan banatuko da Iruñeko Nafarroa Arenan jokatu den finala: goizean, zortzi bertsolariak jardungo dira eta zortzi bertsolariekin emango zaio hasiera arratsaldeko jardunari ere; azkenean, puntu gehien metatu duten bi bertsolarien arteko buruz burukoa jokatu da. Egun osoko jarduneko puntu gehien eskuratu dituen izango da 2022ko txapelduna.

Txapelketan parte hartzeari uko egin dioten bertsolarien artean, Sarriegirekin eta Elortzarekin batera, Beñat Lizaso, Etxahun Lekue, Jokin Uranga, Jon Maia eta Odei Barroso aurkitzen dira. Euren orde Beñat Iguaranek, Haritz Mujikak, Imanol Uriak, Maialen Akizuk eta Patxi Iriarteko kantatuko dute. Denetara, 15 dira lehenengo Txapelketa Nagusian arituko diren bertsolariak eta emakumeen parte-hartzea ere zabal da: 15 denetara.

**SARRERAK, DAGOENEN SALGAI** Txapelketa Nagusirako sarrera guztiak, finalekoak barne, eskuragarri daude dagoeneko [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) atarian. Bertsozale Elkarte argitu dutenez, bazkideek abantailak izanen dituzte hauek esku-ratzerakoan, “beraiek baitira egiten ditugun ekitaldi guztien ezinbesteko sostengua”. Hala, saio guztietan prezio berezia izango dute sarreretan. Horretaz gain, gaurtik ekainaren 30era bitartean bazkide bakoitzak bere finaleko sarrera erreserbatua izango du. Egun horretatik aurrera, gainontzekoen baldintza berdinetan eskuratu ahal izango dute sarrera bazkideek.

Interneteko atariaz gain, finaleko sarrerak Nafarroako Bertsozale elkartearen ere egongo dira salgai ekainaren 23tik 30era bitartean (larunbatean eta igandean ezik), 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara. Gainerako saioetako sarrerak irailtik aurrera egongo dira salgai saioak egingo diren herrietan bertan, aurretik agortzen ez badira.

Txapelketa telebistaz jarraitzeko aukera ere izango da. Irailaren 18an hasiko da Hitzetik Hortzera denboraldi berria, eta igandero izango da ETBlen. Hala, Bertsozale Elkartearekin elkarlanean egiten den telebista saioak Txapelketa Nagusiari eskainitako saio monografikoak eskainiko ditu. Bestalde, finalaurreko guztiak zuzenean emititiko dituzte ETB4k, eta eib.eus zein bertso.eus atariek ere. ●